

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	BASOGINTZA ETA BASO-IZURRITEEN KONTROLA	Iraupena	40
		Espezifikoa	
Kodea	UF1265		
Lanbide-arloa	SEGURTASUNA ETA INGURUMENA		
Lanbide-eremua	Ingurumen-kudeaketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Natura-ingurunearen kontrola eta babesa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Naturaguneen leheneratze, mantentze, antolamendu eta defentsaren kontrola eta zaintza	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Basoberritzea eta leheneratze hidrologikoa	Iraupena	50
	Baso-suteak itzaltzea	Iraupena	50

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0086_3 BALIABIDE NATURALAK LEHENERATU, MANTENDU, ANTOLATU ETA BABESTEKO ERAGIKETAK ZAINTEA ETA HAIETAN LAGUNTZEA gaitasun-ataleko LB2, LB3 eta LB4 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Baso-masen baso-tratamenduak eta haiek inbentarioan sartzeko eta antolatzeko lan osagarriak zein diren jakitea.

E1.1 Lurralde-antolamenduko proiektuen eta kudeaketa-plan teknikoaren atalak identifikatzea.

E1.2 Baso-tratamenduko proiektuen inpaktu-adierazpena estrapolatzea, eragin daitezkeen ingurumen-inpaktuak aztertuz eta haiek minimizatzeko eta/edo zuzentzeko sistemak eta teknikak deskribatuz.

E1.3 Lurzoruaren eta baso-masen hegalean baso-tratamenduak zerrendatzea eta deskribatzea, eta haiek gauzatzeko segida logikoa adieraztea.

E1.4 Baso-masen inbentarioak egitea jarritako helburuen eta aztertzen diren zonen ezaugarrien arabera.

E1.5 Basozaintza-tratamenduak egitean laneko zer arrisku-egoera dauden aztertzea.

E1.6 Baso-tratamenduetan erabiltzen den erreminta edo makina bat aurkeztuta, hura identifikatzea, dagokion lanarekin erlazionatzea, haren zatiak, piezak edo osagaiak adieraztea eta deskribatzea, eta haren mantentze-lanak azaltzea.

E1.7 Baso-masa jakin batean aldaketa bat detektatu den kasu praktiko batean:

- Izurrite, gaixotasun, elikadura-gabezia eta/edo fisiopatia posiblea identifikatzea.
- Zonako ingurumen- eta klimatologia-faktoreak deskribatzea.
- Behar diren laginak hartzea: landare-hondakinak, lurzoruak eta parasitoak, besteak beste.
- Egindako lanen txosten bat egitea, eta harekin batera ikus-entzunezko materiala eta material kartografikoa aurkeztea lagungarri gisa.
- Masa aldatuta egon daitekeela usten den guneen inbentarioa egitea, ekipo eta teknika egokiak erabiliz.

A2: Izurriteak, gaixotasunak eta baso-masen bestelako aldaketak detektatzeko eta kontrolatzeko prozedurak aztertzea.

E1.1 Landareetan, lurzoruaren eta lokaletan kalteak eragiten dituzten agente parasitario, ez-parasitario, belar, elikadura-gabezia, gaixotasun eta fisiopatia sarrienak deskribatzea eta ezagutzea, egindako azterketaren arabera.

E1.2 Parasitoei eta patogenoei eragiten dieten ingurumen- eta klimatologia-faktoreak deskribatzea.

E1.3 Estazio klimatologikoetako informazioa eta abisu-informazioa behar bezala interpretatzea.

E1.4 Izurriteak, gaixotasunak eta fisiopatiak kontrolatzeko eta prebenitzeko metodo kulturalak, biologikoak, fisikoak eta kimikoak zerrendatzea eta deskribatzea.

E1.5 Produktu fitosanitarioak behar bezala deskribatzea, informazio tekniko eta ekonomiko eguneratua erabiliz.

E1.6 Kontrol-metodo fitosanitarioen hautaketan kontuan izan behar diren segurtasun-neurriak eta ingurumena babestekoak deskribatzea.

E1.7 Fauna erabilgarriak ohikoena deskribatzea eta aztertzea, eta haren presentzia balioztatzea, jarduerak minimizatzeko.

Edukiak

1. Baso-tratamenduen prozedura

- Baso-tratamenduak:
 - Basogintza: motak eta helburuak.
 - Baso-komunitatea.
- Baso-inbentarioa: ebaluazio-parametroak, motak, bitartekoak, txostenak...
- Ingurumen-inpaktuak: prebentzio- eta zuzenketa-neurriak.

- Baso-tratamendurako laneko plan estrategikoa: antolamendu dasokratikoko proiektuak.
- Baso-tratamenduetarako bitarteko egokiak.
- Basobera baso garai bihurtzeko prozesua.
- Baso-masako arbolen kategoriak.
- Klase soziologikoak. Espezie autoktonoak.
- Masaren dentsitatea.
- Hainbat baso-espezieren tolerantzia edo temperamentua.
- Produktibitatea.
- Baso-tratamenduen kontrol- eta segurtasun-neurriak.
- Inpaktu-adierazpenen baldintzatzaileen segimendua.

2. Izurriteen detekzioa eta kontrola

- Gaixotasunei buruzko ezaugarri orokorrak.
 - Gaixotasunaren kontzeptua.
 - Gaixotasun-motak eta eragileak.
- Izurriteei buruzko ezaugarri orokorrak.
 - Izurritearen kontzeptua.
 - Izurrite-motak, jatorriaren arabera.
- Aldaketa fisiologikoei buruzko ezaugarri orokorrak. Aldaketa fisiologikoaren kontzeptua.
- Laginketak: krokisak, laginketa-unitateak, erabili beharreko teknikak, laginaren tamaina, kalkulu-guneen kokapena, materialak eta ekipoa, fitxak eta grafikoak.
- Agente eragileen sailkapena.
 - Agente atmosferikoak.
 - Agente poluitzaileak.
- Izurriteak kontrolatzeko metodoak.
 - Metodo fisikoak: oztopoak (sareak, plastikoa, etab.), tranpa kromotropikoak, lurzoruen desinfekzioa (solarizazioa, ur-lurruna, etab.).
 - Laborantza-praktikak:
 - Lurra lantzea, ongarritzea eta medeapenak, ureztatzea eta drainatzea, kimatzea, jorratzea, laboreak txandatzea, txandakako laborantza barietate gogorrak eta landare transgenikoak erabiltzea.
 - Borroka kimikoa:
 - Kontrol integratua:
 - Borroka biologikoa:
 - Lurzorua desinfektatzea (biofumigazioa).
- Teknika kulturalak.
 - Agente biotikoak.
 - Agente abiotikoak. Sailkapena: ingurumen- eta klimatologia-faktoreak (argiaren, tenperaturen, elurraren eta txingorren ekintza), lurzorutik eratorritako faktoreak (uraren ekintza, egitura, ongarririk eta pH-a).
 - Kalkuluak eta laginak teknika eta material egokiak erabiliz egitea.
- Segurtasun-arauak eta laneko osasuneko arauak aplikatzea. Lan-inguruneko segurtasun-arau espezifikoak eta basogintzako eta izurriteak kontrolatzeko ingurumen-babesa.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-erlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Natura-ingurunearen kontrola eta babesa.